



**Hondarribiko Aste Santuko
XII. Argazki lehiaketa (2018)**

Hondarribiko Udaleko Turismo Sailak Hondarribiko XII. Argazki Lehiaketa antolatu du, ondoko baldintzen arabera:

PARTAIDETZA: Lehiaketa honetan edonork parte har dezake.

GAIA: 2018ko Hondarribiko Aste Santua.

MODALITATEA: Argazkiak, koloretan edo zuri-beltzean.

LANAK ETA AURKEZPENA: Partaide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake saritu edota argitaratu gabeak. Irudiaren neurria guztira: 20x30 zentimetro (markorik eta euskarririk gabe).

IDENTIFIKAZIOA: Lanaren atzekaldean izen bat idatziko da eta horrekin batera datorren kartazal itxiaren kanpoaldean, aurkeztutako lanaren edo lanen izen berdinak.

Kartazalaren barruan egilearen izen abizenak, helbidea, telefonoa eta N.A.N.ren fotokopia erantsiko dira.

NORA ERAMAN.- Lanak, pertsonalki, postaz edota mezulariaren bitartez, honako helbide honetara eraman ahal izango dira:

Hondarribiko Udala - BAZ

Kale Nagusia, 20

20280 Hondarribia (Gipuzkoa)

**Orduategia: 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara (astelehenetik ostiralera),
10:00etatik 13:00era (larunbatetan)**



gutunazalean adierazi beharko duelarik “2018ko Aste Santuko Argazki Lehiaketa”, 2018ko maiatzaren 4ko 13:00 orduak baino lehen.

EPAIMAHAIA: Epaimahaia argazkilaritza mailan prestigioko pertsonak izan beharko dira eta bere erabakia apelaezina izango da.

ERAKUSKETA: Argazki onenak, 2019ko Aste Santuan erakutsiko dira erabakitzeke dagoen lekuan.

SARIAK:

1. saria: 500,00 €
2. saria: 400,00 €
3. saria: 300,00 €

Sari hauei P.F.G.Z.ri dagokiona kenduko zaie.

OHARRAK:

- Udalak web orrian (www.hondarribia.eus) berak hala nahi gabe gerta litezkeen aldaeren berri emango du.
- Saritutako argazkiak argitaratu edo erakusketan azaltzeko Udalarenak izango dira, guztietan horien egileak aipatuko direlarik, eta egileek lan osoaren jabeak direlako ardura hartuko dutelarik.
- Aurkezten diren lanen neurriak, oinarrietan eskatutakoak izango dira. Hala izango ez balitz, ez dira erakusketan jarriko.
- Lehiatzaile bakoitzak sari bat besterik ezingo du jaso.
- Saritutako argazkien jabea Udala izango da.
- Lehiatzaileek baimena eman beharko dute, antolatzaileen iritziz merezi duten lan guztiak argitaratzeko.



- Antolatzaileek ahalik eta hobekien zainduko dituzte aurkeztutako lanek, baina hondatu edo galduko balira, ez lukete inolako erantzunkizunik izango.
- Udalak sarituak izan ez diren argazkien negatiboak eros ditzake .
- Lehiaketa honetan parte hartzearekin, baldintza hauek erabat onartutzat ematen dira.
- Epaimahaikoen ustez aurkeztutako lanak saria jasotzeko behar adineko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango ditu.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Hondarribian, 2018ko urtarrilaren 19an
Merkataritza eta Turismo zinegotziak

Izp.: María Serrano Olascoaga



HONDARRIBIKO
UDALA